

Lore Jokoak 2024 galdera-erantzunak.

Euskara/euskaldunen jazarpena

- 1.- Bizkarsoro pelikulan euskaraz hitz egiteagatik ikaslea zigortzen du. Zenbat aldiz errepikatu behar izaten du arbelean euskaraz ez duela hitz egingo? **50.**
- 16.- Euskadi saria irabazi duen zein liburutan azaltzen da euskararen galera prozesua? **Etxera bidean (Xamar)**
- 3.- Zeinek idatzi zuen *El libro negro del euskera*? **Joan Mari Torrealdai**
- 4.- Azkoitiko zein txoko ezagunean idatzita dago gaztelera pilotan jokatzeko debekua? **Kontzejupean**
- 5.- Zein da Patxi Zaharra ezizenez ezagutu zen pertsonaia historikoaren izena? **Francisco Franco**
- 6.- Zein izan zen lehen ikastolaren andereño famatua? **Elbira Zipitria**
- 7.- Ze izen hartu zuen 60. hamarkadan euskal kantagintza eta kultura suspertzeko mugimenduak? **Ez dok amairu**
- 8.- Zer esan nahi du euskaldunok askotan entzun izan dugun *Habla en cristiano* esaerak? **Erdaraz hitz egiteko.**
- 9.- Zein da Gerra Zibilean fusilatu zuten olerkari euskaldunaren izena? **Estepan Urkiaga "Lauaxeta"**
- 10.- Escuela Nacional delakoetan zer ipintzen zioten behatzean euskaraz hitz egiten zuenari? **Eraztuna**
- 11.- Aukeratu erantzun zuzena: Hego Euskal Herrian legez...
 - a) Euskara jakitea derrigorrezkoa da
 - b) Gaztelera jakitea derrigorrezkoa da**
 - c) Euskara eta gaztelera jakitea derrigorrezkoa da
- 12.- Zergatik atxilotu zuten Nemesio Etxaniz apaiz azkoitiarra? **Mezetan erdaraz emandako sermoiaren azalpena euskaraz emateagatik**
- 13.- Zergatik kendu zuten bere kargutik Urola Treneko zuzendaria 1938an? **Euskarazko inskripzioa zuten txartelak banatzeagatik**

14.- Ze urtetan hartu zioten kargu Aitor Montes medikuari txostenak euskaraz idazteagatik? (Kontxo, mediku ona eta euskalduna!) **2023**

15.- XVI. mendean zer egin zioten Luzaideko alkateari erregearen ordezkariari gazteleraz ez erantzutegatik (ez zekien, eta nola erantzungo zuen ba erderaz!)? **Kartzelan sartu zuten**